

Pello Urkidi Elorrieta  
Irakasle Eskola (EHU)  
[pello.urkidi@ehu.es](mailto:pello.urkidi@ehu.es)

## LURRALDE ANTOLAMENDUA

### LABURPENA.

Industria Iraultzaren eragina bai hirietan eta bai hirietako sisteman edo sistema urbanoan gero eta areagoa izan zen XIX. mendean zehar. Eta hala izan zen horietako bizilagunen bizi-kalitatearen mailari dagokionez (higienea, osasungarritasuna, pilaketa, eta abar) antolamendu funtzionalari dagokionez (zirkulazioa eta mugikortasuna) eta lurrealdeko orekari dagokionez (industria jardueraren gehiegizko pilaketa eta bestalde lur jotako eremu handiak).

Horrek guztiak alternatiben formulazio kontzeptualera eraman gintuen, horiek XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran hasi ziren itxura kontzeptual hori hartzen. Howard-en lorategi-hiri moduan ezagutzen diren proposamenak dira edo Patrick Geddes-en eta Lewis Mumford-en plangintza sistematikoko eta lurrealde planeamenduko eskualde mailako ikuspegiak. Hori guztia nazioarteko adierazpenetan azalduko da, hala nola 1933ko Atenasko Gutunean, Ipar Amerikako hainbat planetan (1909ko Chicagoko Plana, 1929ko New Yorkeko eta horren inguruetaiko Plana, eta Europakoetan, eta bereziki Erresuma Batuan egindako txosten desberdinetan (1940ko Barlow txostena, industria kokapenari eta horren ondorioei buruzkoa), aitzindari izandako plangintza-esperimentzietan, hala nola 1930eko Bristol eta Bath-eko Eskualde Plangintzarako Eskema eta Londresko Konderriko Plana (1943) eta Londres Handiko Plana (1944). Esperimentzia horien guztien eta 1945etik 1950era bitarte gauzatu zen legeriaren ondorioz sortu zen Erresuma Batuan garatutako Regional Planning ezaguna.

Esperimentzia horietan oinarrituko dira Espainiako Estatuan hogeita hamarreko hamarkadan egin ziren lehenengo proposamenak, eta baita, ñabardura garrantzitsuak gehitura, frankismoaren diktadura garaian garatu ziren eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat proposamenetan adierazi zirenetan ere (1945eko Bilboko Eskualdeko Antolamendurako Plan Orokorra eta 1964ko Bilborako eta horren eskualderako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra; Gipuzkoako Hiri Antolamendurako Plan Probintziala, 1966).

Demokrazia eta Autonomien Estatua ezarri zirenetik aldaketa oso nabarmena izan zen, Autonomia Erkidegoek beren gain hartu zuten lurrealdearen hirigintza eta antolamendurako eskuduntza esklusiboa. Hasiera batean eta erritmo desberdinetan horiek izango dira legeak eta arauak gauzatuko dituztenak, horiek izanik gerora eta garapen maila desberdinetan implementatu nahi izan dituztenak. Horrekin batera berrikuntza ugari ere eman dira, hala nola Europako integrazioa eta lurrealdeetan izan diren dinamiketatik sortu diren “berriak-zaharrak”.



## **BIBLIOGRAFIA (denbora izanez gero saioan komentatuko da).**

BENAVENT FERNÁNDEZ, M. (2006): *La Ordenación del Territorio en España. Evolución del concepto y de su práctica en el siglo XX*. Universidad de Sevilla/Consejería de Obras Públicas y Transportes de Andalucía, colección Kora, Sevilla.

ERQUICIA OLACIREGUI, J.M. (2003): *Del planeamiento urbanístico a la ordenación del territorio: la necesidad de un cambio de escala. El caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Gob. Vasco, Dpto. de Ordenación del territorio y Medio Ambiente, Vitoria-Gasteiz.

GÓMEZ OREA, D. (2002): *Ordenación Territorial*, coedición Mundi-Prensa y Edit. Agrícola Española, S.A., Madrid.

HILDENBRAND, A. (1996): *Política de ordenación del territorio en Europa*. Univ. De Sevilla/Consejería de Obras Públicas y Transportes de la Junta de Andalucía, Sevilla.

LASAGABASTER, I. y LAZCANO, I. (1999): *Régimen jurídico de la Ordenación del Territorio en Euskalherria*. Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati.

PÉREZ ANDRÉS, A.A. (1998): *La Ordenación del Territorio en el Estado de las Autonomías*. Madrid, Inst. Universitario de Derecho Público García Oviedo/Marcial Pons.

ROMERO, J. y FARINÓS, J. (2004): *Ordenación del Territorio y desarrollo territorial. El gobierno del territorio en Europa: tradiciones, contextos, culturas y nuevas situaciones*. Ediciones Trea, Oviedo.

ROMERO, J. y FARINÓS, J. (2006): *Gobernanza territorial en España. Claroosucuros de un proceso a partir del estudio de casos*. Publicacions de la Universitat de Valencia.

TARROJA, À. y CAMAGNI, R. (2006): *Una nueva cultura del territorio. Criterios sociales y ambientales en las políticas y el gobierno del territorio*. Colección Territorio y Gobierno: Visiones nº4. Diputación de Barcelona, Xarxa de Municipis.

TARROJA, À. y MATA, R. (2006): *El paisaje y la gestión del territorio. Criterios paisajísticos en la ordenación de territorio y el urbanismo*. Colección Territorio y Gobierno: Visiones nº5. Diputación de Barcelona, Xarxa de Municipis.

URKIDI ELORRIETA, P. (2007): *Análisis del tratamiento del medio físico en el Planeamiento Territorial de la CAPV(1940-2006)*. Serie Tesis Doctorales (CD), Univ. Del País Vasco, Bilbao.

VEGARA, A y DE LAS RIVAS, J.L. (2004): *Territorios Inteligentes*. Fundación Metrópoli, Madrid.

### **Aldizkariak.**

*Boletín Geográfico de la AGE.*

*Ciudad y Territorio..*

*Urban.*